



Maitasuna euskarri – Celebrando testimonios de amor



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta
Katekesirako Ordezkaritza
Delegación de
Anuncio y Catequesis

Sarrera

Ostiral Santuz Elizak Jesusen nekaldi eta heriotza ospatzen du. Egun horretan ez dago eukaristia-ospakizunik. Gurutzearen begiespen eta gurtza dira egun horren eta gure otoitzaren ardatz.

Ostiral Santuak aurrez aurre jartzen digu abandonua, bakardadea, tristura, sufrimendua eta heriotza bera. Jainkoarengan sinesten dutenek gaurkotasunez beteriko erronka dute aurrez aurre: gizadian gaur bizi duen egundoko ostiral santua bizi eta horri geure fedetik nolabaiteko zentzua eman. Zein zentzu izan dezake XXI. gizaldiko pertsonentzat duela 2000 urte inguru Jesus gurutzean hil izanak?

Gizon eta emakume askok eta askok, belaunaldiz belaunaldi, Jesusen gurutzean sasoi eta leku guztietako gizon eta emakume gurutziltzatuak agertzen direla eta Jesus historiako bide-bazterretan geratzen ari diren behartsuenen eta makalenen ondoan jartzeagatik hil zela gurutzean.

Ostiral Santuak hainbat galderaegiten digu: Non zen Jainkoa gizon zuzenen artean zuzenena zen bere Semea hiltzen ari zirenean? Zer itxaron dezakegu azkeneraino emandako Jesusena bezalako maitasunezko bizitzak gurutzean zintzilikaturik bukatzen badu? Hau ere galde dezakegu: Zein jarrera dut gurutzearen aurrean? Ingurukoen sufrimenduaren aurrean ez ikusiarena egiten dutenen artean nago? Axolagabe naiz? Ala, alderantziz, bidegabekeriaren aurka eta sufrimenduaren arintasunaren alde eraginkortasunez borrokatzen dut?

Gurutzearen oinetan jarri eta Jesus gurutziltzatuari begiratzeko esaten zaigu gaur, biktimen ondoan jarri eta laguntzeko. Egun hauetako lekukotasunak guztiz lagungarri izan ditzakegu.

2020ko ASTE SANTUA – OSTIRAL SANTUA

Jesus, bere gurutzean, bidegabekeriaren aurka borrokatzeagatik kondenatzen dituztenengan eta mundura itxaropena eta poza eramaten dutenengan agertzen dela sinesten dugu.

Honetaz konturatzea, gaur, Ostiral Santua, Jesusekin bat egitea da.

Proposamena:

- Otoitza eta kontatutako ebanjelioko pasarte
- Gurutze-bidea Luis Guitarraren abestiarekin
- Txorimaloaren parabola etxeko guztientzat
- Lagungarri izan daitezkeen ondorio-oharrak
- Eskulana familian egiteko
- Abestia eta otoitza

Jesusen nekaldia

(Hurrei egikituta: <https://rezandovoy.org/especiales/infantil/>)

Jesusen azken eguna oso gogorra izan zen.

Adiskideekin afaldu ondoren, bazekien agintariak bere atzetik zebiltzana eta bera hil nahirik zebiltzana.

Horregatik, leku lasai batera joan ziren eta Jesus otoitz egiten hasi zen eta Jainkoari indarra emateko eskatu zion. Adiskidek lo hartu zuten. Orduan, soldadu juduak iritsi ziren eta zalaparta handiaren ostean, atxilotuta eraman zuten.

Hortik aurrera, hiru epailek epaitu zuten Jesus.

Lehenik, epaile juduak, Kaifasek. Honek ez zuen ulertzen nola hitz egin zezakeen Jesusen Jainkoaz maitasun eta barkamenaren ikuspuntutik. Kaifasentzat gauza garrantzitsu bakarra, legea zelako. Beraz, Jesus erruduntzat jo zuen, Jainkoaz gaizki hitz egitearren.

Juduen erregea zen Herodesen aurrera ere eraman zuten Jesus. Baina hau ez zen ezertaz ohartzen. Jesus mirariak egiten jarri nahi izan zuen –magia edo telebistarako ikuskizun bat izango balitz bezala-. Jesusek ez zuen holakorik egin, ez zuelako jendeak gauza miragarriak egiten ikusteagatik berarengan sinisterik nahi. Bere hitzengatik sinestea nahi zuen. Beraz, Herodesek ere ez zuen askatu.



Jesusen nekaldia

Azken epailea, Pilato gobernari erromatarra izan zen. Hauxe zen argiena; bazekien Jesus errugabea zena, baina gainerako juduekin haserretzerik nahi ez zuenez, gezurra esateko esan zion Jesusi. «Tira, Jesus, esan Kaifasek arrazoi duela eta libre utziko zaitut», lesaten zion. Baina Jesusek ezezkoa eman zion, beretzat Jainkoaren egia oso garrantzitsua zelako. Hori dela-eta, Pilatok heriotzara kondenatu zuen, ez zuen-eta iskanbilarik nahi. Gurutzea lepoan hartzera behartu eta bi lapurrekin batera Jerusalemeko kaleak zehakatu eta hiriaren kanpoaldean zegoen mendi bateraino eramán zuten. Jesus zaurituta zegoen, ahul, epaiketetan majo astindu zutelako. Batzuek, hain kolpaturik ikusita, negar egiten zuten. Beste batzuek, iraindu... Adiskideak urrun zeuden, denek ihes egin zutelako. Eskerrak Zireneko Simon aurkitu zutena bidean, honek eramán ziolako gurutzea ibilbideko zati baten, Jesus erabat akiturik zegoelako.

‘Golgota’ izeneko mendira iritsi zenean, biluztu eta gurutzean josi zuten. Soldaduek iseka egin zioten, baina Jesusek astia izan zuen Jainkoari eskari bat egiteko: barkatzeko beraren aurka aritu zirenei. Eta maitasunez beteriko hitzak zuzendu zizkien amari eta honekin gurutzearen oinetan zegoen Joan adiskideari.. Bere ondoan gurutzean josi zituzten bi lapurretako bati ere barkamena eman zion. Azken arnasa eman eta hil egin zen.



Zein izan zen bere delitua? Ez zuen deliturik izan Zer dela-eta salatu zuten? Jainkoa maitasun, zuzentasun eta errukia zela irakasten zuelako. Eta hori, askok eta askok ez du ulertzen, ez orduan ezta orain ere.

Abestia:

<https://www.youtube.com/watch?v=jMhDmOJZWko>

VIA CRUCIS
Camino de la Cruz

Nekaldiaren kontaktan sakontzeko

- ❑ **Jesusen atxiloketa.** Jesus izututa dago eta bakarrik sentitzen da. Zein sentimendu eragiten dizu egoera horrek?
- ❑ **Epaiketa eta zigorra Jesusentzat.** Zein salaketa egiten dute Jesusen aurka? Zein da beraientzat Jesus heriotzara kondenatzeko benetako arrazoia? Zure ustez, Jesusek epaiketa zuzena izan zuen?
- ❑ **Golgota mendirantz.** Jesus larri zaurituta dago, nekatuta, ez du gurutzea eramateko indarrik ere. Baina bidean, gizon batek lagundu egingo dio: Zireneko Simonek. Zergatik lagundu nahi ote zion Simonek Jesusi? Zuk lagunguko zenioke? Ezagutzen duzu zure inguruan gaizki pasatzen ari den haur edo nagusirik? Nola lagun diezaiokezu?
- ❑ **Jesusen gurutziltzaketa.** Bere oinazea egundokoa bada ere, Jesus ingurukoen egoeraz arduratzen da azkeneraino. Nortzuk dira Jesusen ondoan dauden pertsonak? Zer egiten dute? Zer esaten die Jesusek?
- ❑ **Jesusen heriotza.** Jesus, azken arnasa eman, eta hil egiten da. Zer sentitzen duzu une horretan?

IPUINA: TXORIMALOA

Urrutiko herri batean bizi zen nekazari zekena hain zuzen ere bere zekenkeriagatik izan zen ezaguna. Hainbestekoa zen non, txori batek lurrian aurkitzen zuen galburua jaten zuenean, sutan jartzen zen eta egun osoa igarotzen zuen baratza miatzen inork uki ez zezan.

Hainbeste buelta eman zion txorien lapurretari non azkenean ideia hau bururatu zitzaion: baratzaren zainketan eraginkortasunez lagunduko zion txorimaloa egin.

Hiru kanaberarekin beso eta hankak egin zituen; lastoarekin gorputza taxutu zuen, kalabaza jarri zion buru erara, bi artale begietarako, azenario freskoa sudurrerako eta galburu-hilera hortzak irudikatzeko.

Txorimaloaren gorputza taxutu, jantzi zahar batzuk jarri eta lurrian tinkatu zuen. Begirada ikuskatzailea bota eta bihotza falta zitzaiola ohartu zen. Granadondoko fruiturik helduena hartu eta paparrean jarri zion.

Txorimaloa baratzean geratu zen, haize-bufada kapritxosoen menpe. Berandu gabe, gose zen kurloia baratzera hurbildu zen galbururen bat aurkitzeko itxaropenarekin. Txorimaloa bere egitekoa betetzen saiatu zen, bere mugimendu baldarrekin txoria uxatu nahirik, baina txoriak, zuhaitzean pausatuz, esan zion:

-Gari bikaina duzu, gero! Eman apur bat nire kumeentzat!

-Ezin dut –esan zuen txorimaloak-. Hala ere konponbidea bilatu eta aurkitu egin zuen: garizko bere hortzak eskaini zizkion.

Kurloiak, pozik eta hunkituta, galburuak hartu egin zituen. Txorimaloa, hortzik gabe baina poz-pozik geratu zen bere ekintzarekin.

Egun batzuen buruan, bisitari interesatu berria sartu zen baratzean. Kasu honetan untxia zen.

Berehala joan zitzaizkion begiak azenariora...Txorimaloak, oraingoan ere, uxatu egin nahi izan zuen.

Untxiak begiratu eta esan zion:

-Azenarioa nahi dut, gose naiz.

Txorimaloak bihozkada izan zuen eta azenarioa eskaini zion. Pozarren zegoen eta abesteko gogoia sartu zitzaion baina ez zuen ez ahorik ezta sudurrik ere horretarako.

Goiz batean, oilar goiztiarra agertu zen, 'kikiriki' eginez alai. Ondoren, esan zion:

-Debekatu egingo diot oiloari bere arrautzekin nagusiaren sabel eta zekenkeria elikatzea, berak ia ez dio-eta jaten ematen.

Txorimaloari ez zitzaion ideia ona iruditu eta artalez osaturiko bere begiak hartzeko esan zion.

-Ondo da –esan zuen oilarrak- eta joan egin zen esker onez.

Ilunabarrean, nekazariak kaleratu egin duela dion eskekoaren ahotsa entzuten du.

-Eskalean naiz, esaten dio.

-Hartu nire jantziak, ez dut besterik zuri eskaintzeko.

-Eskerrik asko, txorimalo!

Egun berean, beranduxeago, amarentzat jateko bila ari zen haurraren negarra entzun zuen.

Baratzearen jabeak kaleratu egin zuen, bere beharrez arduratu gabe.

-Anai –oihukatu zion txorimaloak-, hartzazu nire burua, kalabaza ederra baita.

Eguna argitzean, nekazaria baratzerantz joan zen eta, txorimaloa zein egoeratan zegoen ikusita, biziki haserretu zen eta su eman zion. Halako batean, lurrera jausi zen bere granada-bihotza.

Nekazariak, barreka, esan zion: "Hau neu jango dut". Eta hozka egiteaz batera, aldatu egin zen: bere harrizko bihotza haragizko bihotz bihurtu zen.

Aurrerantzean, nekazariaren baratza oparoa izango zen denentzat eta abesti bihurtuko zen, giza berotasunaren nota harmoniatsuaz gozatzeko leku.

Elkarrekin egiteko: Gurutzea

Jesusek gurutzean eta ipuineko txorimaloak baratzean, guztia ematen dute besteen alde. Konfinamendu honetan, gurutzea egin dezakegu zapata-kaxa baten kartoiarekin edo esne-brikarekin. Kartoizko gurutzean, egunotan ikusten ari garen sufrimenduak marraztu, idatzi eta itsatsi egingo ditugu.

Atera argazkia eta bidali zuretzat berezia/k den/diren pertsonari/pertsonei.



OTOITZA

Kaixo Jesus!

Gaur haserre samar nago, hainbat gauza ez dudalako ulertzen eta, galdetzean, itxaroteko, nagusien kontuak direla, hazten naizenean ulertuko ditudala esaten didatelako.

Baina nik oraintxe jakin nahi ditut; guraso batzuek zergatik ez duten elkar maite jakin nahi dut; telebistan zergatik ateratzen den hainbeste atsekabe; hain ona izanda, zergatik hil zintuzten jakin nahi dut, Jesus; zergatik ez den zerutik inor itzultzen hango bizimoduaren berri ematera.

Ez nirekin haserretu hain zazpikia izateagatik, badakizu adiskidea nauzuna eta zutaz fio naizena, eta badakit ulertzen nauzuna hainbeste galdera egiten dudanean.

Zurekin nago <https://www.youtube.com/watch?v=W-wc-r2wmSg>



